

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuaren Enpresa Haztegiek mila lanpostu sortu dute hogei urtetan

'Haztegiak' sortu berri diren enpresei proiektuaren lehen urteetarako laguntza eta zerbitzu teknikoak eskaintzen dituen espazioak dira

Lunes, 13 de febrero de 2012

[Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa \(CEIN\)](#) sozietate publikoaren [Enpresa Haztegiek](#) 133 enpresa hartu ditu barnean 1991m sortu zenetik eta aldi horretan 1.000 lanpostu inguru sortu dituzte. Konpainia horien biziraupena % 79koa da, haztegietan hiru urteko jardueraren ondoren. Ratio

horrek estatuko indizea 13 puntutan gainditzen du, % 66koa dena, Estatistikako Institutu Nazionalaren Espainiako enpresa-demografia buruzko azken txostenaren arabera.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilari Lourdes Goicoecheak datu horiek nabarmendu ditu CEINen Enpresa Haztegietan 2011an ezarritako enpresa berriak aurkezteko ekitaldian. Kontseilariarekin batera izan dira: sozietatearen zuzendari-gerente Pablo Romera eta Tuterako Udalaren Industriako zinegotzi Maribel Echave Blanco. CEINEk kudeatzen dituen haztegiak Noainen (Berrikuntzako Haztegia eta IKTen Haztegia), Tuteran (Nekazaritza-elikagaien haztegia eta Enpresen Haztegia) eta Lizarran (Enpresa Haztegia) daude.

Haztegi horiek enpresa-ekimen berriei lau urtez egiten zaien harreraguneak dira; bertan laguntza tekniko pertsonalizatua jaso eta enpresa garatu nahiz merkaturatzeko azpiegitura, teknologia egokiak dituzte.

2011n, haztegi horietan 10 konpainia berri eta bi enpresa-proiektu sartu ziren. Horiekin, 30 enpresa ezarri dira, inkubazio aurreko zazpi proiektuekin batera (oraindik sortu gabe), guztira, 131 lanpostu dira.

Instalazio berriak

Noingo Haztegian bi enpresa berri ezarri ziren; *Inbioley* (ardoak organoleptikoki hobetzeko zerbitzuak upeltegi bakoitzeko berezko legami autoktonoak objektiboki identifikatuz eta hautaketa zehatza eginez) eta *Europea de Sistemas Técnicas de Seguridad* (sarrailen eta segurtasun-gailuen diseinua eta sorkuntza).



Goicoechea kontseilaria CEINeko Enpresa Haztegien enpresarioekin .

Tuterako Nekazaritza Elikaduraren Haztegiak bost konpainia hartu zituen: *Applied Food* (eskolan erabiltzeko lekedaren fabrikazioa eta merkaturatzea), *Doble A* (merkataritzako eta marketing-eko zerbitzuak nekazaritza-elikagaien sektorerako), *Plus Nature* (nekazaritza-elikagaien zerbitzu integral eta globalak, batez ere ekoizle txiki eta ertainari bideratutakoa eta nekazaritza-elikagaien prozesatzailea produktibitatea hobetzeko), *Chichorium* (endibia landatzeko aholkularitza, era biologikoan nahiz ohikoan) eta *Precosana* (era guztietako elikagai-intolerantziak dituzten pertsonentzat prestatutako platerak).

Tuterako Udalaren haztegian jarri ziren, *Efen Energia* (energia eraginkorreko azterketak), *We are Plastic* (marketing online elkarreragilea) eta *Cigüeña Stop* (teilatuetan izaten diren zikoinak uxatzeko sistemen fabrikazioa eta merkaturatzea).

Gainera, eta aurre inkubazioko modalitatean, konpainia eratu aurretik, haztegiak bi proiektu hartu zituzten: *Recombina* (helburu bioteknologikoak dituzten genetikoki aldatutako bakteriak nahieran diseinatu eta sortzea) eta *Greenwave* (informazio-teknologiaren garapena makinaren eta haien ingurunearen arteko interkonexiorako), Noingo instalazioetan daudenak.

Aurreko ekitaldian sei konpainiek haztegiak instalazioak utzi zituzten. Haietako lauk beren jarduera beste lokal batzuetara eraman zuten: *KSI* (segurtasun dokumentalerako irtenbide aurreratuak), *D2D* (aholkularitza-zerbitzuak eta garapena informazio-teknologiaren esparruan), *Simax* (simulagailuen garapena) eta *FnPrepaço* (energia eraginkorreko sistemen garapena).